

AUTOKTONO KONZEPTUA TA EUSKAL FOLKLOREA

JOSE I. ANSORENA

0. Autoktono hitzaren plazaratzea. Mugaketa beharra

1. Esanahi etimologikoa: honen ezaskitasuna.

2. Azkue ta Gaskueren arteko polemika.

3. Autoktono konzeptua. Lau ezaugarri: ez da konzeptu absolutua; objektuaren fazetak; denbora; lekua.

AUTOKTONO HITZAREN PLAZARATZEA. MUGAKETA BEHARRA.

Euskal folkloreak arduratzen direnen artean *autoktono* hitza plazaratu zuen mugimendua orain dela hamabost bat urte hasi zen. *Argia*, dantzari taldearen sorkuntza ta aurrerabidearekin batetara esango nuke. Ordurarte, euskal folkloreaken praktika, euskal dantzen praktika batik bat, anarkiko samarra zen. Gerraurreko garaietan *Saski-Naski* taldeak ireki zuen bideari atxikitzen zitzaion eta horrela, dantzari talde guztien edo gehienen errepertorioa asmatutako dantzek edo beren jatorriaz erabat aldatutako dantzek osatzen zuten. Horregatik jaialdietan Jose Uruñuelak eratutako *Kontrapasa* —berez, *zortzikotxiki* bat dena— edo *Museta*, ta *Saski-Naski* taldeak emakumendutako gizonen *Sagar-dantza* dantza folklorikotzat ematen zitzaizkigun. Horregatik baita ere *Dantzari-dantza* ikusten ohi genuen Berritzen inoiz dantzatu ez den erara.

Esan dudanez, *Argia* dantzari taldearen agerkuntzak giro aldaketa bat suposatu zuen, euskal dantzen eremuan hasiera batetan ta geroago euskal folkloreak osoan. Dantzak norberak aldatzeari muzin egiten bait zion talde honek. Bide honetatik, talde folkloriko baten lana ohitura, ipuin, kanta, atsoitz, dantza ta abarren ikerketan zegoen, ta jatorriari errespetoa zor zitzaion. Ez ziren legezkoak, beraz, arterainoko aldakuntza arinak. Giro berri honek —hau dateke, agian, *Argia* taldeak egin diguen lanik eskergarriena— talde folkloriko guztietan eragin handia erdietsi zuen.

Inguru berri honetan eta nolabait azkeneko joeren zutoihalaren antzera, *autoktono* hitza azaldu zen. Errealitate autoktonoak aurkitzeko ahaleginetan hasi ziren folkloreakerik, gehienak eta handik honerainoko denboran ikerkuntza hauek ondorio ugari ta baliotsuak eman dituzte.

Behin baino gehiagotan, ordea, autoktono konzeptuaren mugaketa ezak nolabaiteko nahasteak sorterazi ditu. Askotan horregatik zaku berberean sartu egin izan dira elkarrekin euskal kulturaren sustraitutako elementuak ta Mendebaldeko beste edozein kulturatakoak izan zitezkeenak. Batzuetan arrazoin ideologikoen eraginez, gure kultura ta folklorea goresteko. Besteetan folkloreakari dagokion helburuaz nahasketa teoriko batengatik: pentsatu delako folkloreakari *zaharraren* azterketa dagokiola ta *ez elementu bereizgarriena*. Dena dela, *Muxukitarra* euskal musikagailu folklorikotzat aurkeztu digute. Otxaga-

biako dantzak *klarinetak* lagunduta ikusi ditugu, honela dultzainak joko balitu baino jatortasun handiagoa erreibindikatu. Musika taldeei euskal musika eratzan dutela entzun egin izan diegu, doinu herrikoi bat hartuta *erritmo exotikoa ta armonia arrotza* atxikitzen diotelarik.

Badirudi, beraz, autoktonotasuna zertan dagoen argitzea ez dela errazegia. Folkloreak zientzia bat izan behar duenez gero, komeni izango da konzeptu hau ahalik ta klarkien zehaztea nahaste gehiagori itzurtzeko.

1. ESANAHI ETIMOLOGIKOA: HONEN EZASKITASUNA

Autoktono konzeptua, nire aburuz, interesgarri oso gertatzen zaio folklore zientziari, batez ere objektu folklorikoak ta hauek sortzen dituen kulturaren arteko erlazioak argitzen dituelako. Objektu baten autoktonotasunari dagokio kultura herrikoi batetan zein neurritaraino errotuta dagoen markatzea.

Hitz honen etimologiak ez digu gehiegi zehazten folklore zientzian duen esanahia. Bi greziar erro linguistiko dago autoktono hitzan. *Auto* aurrizkia, propioa esanahiarekin, norberak egina edo norberarena dela. Ta *khthôn*, lurra adierazten duen berba. Beraz, autoktono konzeptuaren esanahi etimologikoa honela mugatzen da: “aurkitzen den lur berean sortua”. Hain zuzen ere, honela definitzen bait dute hiztegiek. Eta zentzu honetaz erabiltzen da ere hizkera arruntean, esate batetarako, lur batetan bertan jaioei aplikatzen zaienean. *Lur* esanahia ez dugu zehatz ta mehatz ulertu behar. Honelako kasuetan herriak ere, metonimia baten bidez, kultura, nazio, herri edo aberri, ta antzeko esanahien sinonimotzat hartzen ohi du.

Jaiotze ta jatorriari dagokionean ez da eskuarki esanahiaren zabaltze literariorik egiten. Objektu bat euskaldun ta autoktonotzat ematen denean, euskaldun batek asmatu zuela, Euskal Herrian aurkitu zela lehenengo aldiz edo ta euskal kulturaren objektu soila dela adierazi nahi izaten da ta ez gehiago.

Autoktono hitzaren ulerpen hestu hau baliagarri da oso eguneroko hizkera arruntean. Objektu folklorikoetaz aritzeko zenbait xehetasun behar du. Txistua euskal musikagailu autoktonoa ote den ez dut uste duda gehiegi izango duzuenik. Euskaldun guztiek onartzen dugu kasik euskal musikagailu nazionalizat. Iztuetak bazioen: “Ezda sortu eta asmatuco ere euscaldunentzaco oslancai edo instrumento pozcarriagoric, nola diraden damboliña eta chilibitua” (1). Esanahi hestu horri lotuz gero, ezin esan genezake txistua euskal musikagailu autoktonoa denik. Noski, mundu osoko kultura guztietan, Afrikatik Ameriketaraino ta Europa osoan zehar, hiru zulotako txilibitua hainbestetan ikusirik, nor ausart liteke horrelakorik esaten? Ta horrenbeste gertatuko litzateke hain sarri autoktonotzat emandako objetuekin: alboka ta dultzaina, adibidez.

(1) IZTUETA, Juan Inazio, *Gipuzkoako Dantza Gogoangarriak*, La Gran Enciclopedia Vasca, BILBAO, 1968, p. 50.

Oso zaila gertatzen da beti, ezinezkoa ez denean, objektu folklorikoen jatorrizko tokia edo kultura kokatzea, eta hipotesis mailan lekua inkatu den kasuetan, Euskal Herritik urrun gertatu da gehienetan. Pentsa dezagun dantzen kasuan. Hauetariko askoren sorkuntza zioa Mendebaldeko kultura guztietan agertzen da antzeko dantzak sorreraziz (Ihateriak, Maiak,...). Besteetan, oinarrizko forma koreografikoei parekoak dituzte Europako leku askotan. Edo ta kontsidera dezagun erbestekoekin antza handi baino handiagoa duten ohitura, ipuin, errefracu ta abarren kopurua, kasualitatez amiti daitekeena baino askozaz sakonagoa. Guzti honetaz argigarri oso iruditzen zait Azkueren *Euskale'riaren Yakintza*, erakartzen duen datu piloarengatik batez ere.

2. AZKUE TA GASKUEREN ARTEKO POLEMIKA

Autoktonotasuna zertan datzan ez dugu oraingoan lehenengo aldiz plazaratzen. Beste garaietan ere euskal folklorezaleek hitz egin dute arazo honetaz, hain zuzenki ez bada ere. Euskal kantari dagokionez Azkuek planteatu zuen 1918.ean, Bilboko *Sociedad Filarmónica* delakoan eman zuen hitzaldi batetan. Hitzaldi hau Azkue beraren *Cancionero Popular Vasco-ren* hitzaurre gisa argitaratu zen.

Azkueren abiapuntua zera zen: Franzisko Gascuek emandako beste hitzaldi bat. Hartan euskal kanta zenik ere ukatu egiten zen. Gaskueren aburuz, euskal kantari ezagunenak ta normalki euskalduntzat hartzen zirenak arrotzak ziren. Eta, gauza bitxia, bere teoriaren hasiera nahigabe Azkuek eman zion, Euskal Herrian kantatzen den *Uso zuria-ren* doinua Bretandarra zela esan zionean. Ideia honetatik hasita, ta beste kanta askoren aipamena eginez, Gascuek teoria bitxi hori konkluditzen zuen: euskal kantutegi herrikoirik ez dagoela, alegia.

Azkuek, bere erudizio harrigarri ta umore zentzu berezi batez, klarki erantzun zion berak zegien galderari: badea euskal musika? Noski, erantzuna baiezkoa zen, Azkuek bere aurkakoaren adibideak amittuz gainera askoz adibide gehiago jarri zituen arren. Lehenengo euskaltzainbururen hitzetatik ondortzen dena zera da: nahastearen prolema ez dela bakarrik euskal kantuen, baizik eta beste kultura guztien kantuen ere. Gaskueren planteamendutik —alegia, euskal musikak ez zuela batasun kulturala eta zeltarekin bat egiten zuela— eta haren proposamenduekin arras koerenteki, Azkuek ondortzen zuen euskal-zelta-germandar-astur-poloniatar kantutegi baten existentzia. Jakina, arrazomendu hau txantxa txiki bat besterik ez da. Honela adierazten bait zuen Azkuek bere benetako ustea:

“Verdad es que así como no hay lengua que pueda jactarse de no haber sido influida por otra; así como no hay mar, ni siquiera el Caspio, con cuyas aguas no se mezclen las de otro mar, pues las nubes se encargan de recoger la evaporación de las aguas de todos los mares, y de condensarlas y repartirlas por toda la tierra; así no hay

cancionero en el mundo, tratándose de pueblo siquiera barnizado de cultura, que pueda envanecerse de absoluta autonomía” (2).

Azkuek kantari buruz egin zuen ohar hau, nire ustez, baliagarri zaie ere bai folkloreaken beste arlo guztiei.

Konturatzten bagara, Gaskuek obratutako okerra gure garaietan gertatu denaren arras kontrakoa da. Gure errakuntza izan da autoktonotasunari mugarik ez jartzea, konzeptu zabalegia hartzea, beraz ezer gutxi dioena. Horregatik gertatzen zaigu egun, objektu batez autoktonoa dela esatean gutxiegi diogula iruditzea. Gaskuek beste muturrera jo zuten. Hestuegi bihurtu zuten autoktonotasuna. Kampoko kutsurik gabekoari zeritzon bakarrik autoktonoa. *Bataio-fedea* zuena ematen zuten soilik autoktonotzat. Noski, esku hutsik geratzen zen: ez zegoen horrelako objektu autoktonorik.

Folklore ikerkuntzak zientzia bat izan behar du, lehenago esan dugu ere. Oinarrizko konzeptuek —eta autoktonoa horietako bat da— bere ikerkuntza arloko objektu guztiak bereizteko ta antolatzeke balio behar diote. Aipatu ditugun bi era hauek —Gaskuerena ta egun zabaldua dagoena— ez dira egokiak, folklore zientziari ez zaizkio erabilgarri gertatzen, bietako ezeinek ez duelako bereiztasunik erakartzen ezta objektuak edo hauen osagaiak klasifikatzen. Bes-telako eratan ulertu behar da autoktonotasuna. Nola?

3. AUTOKTONO KONZEPTUA. LAU EZAUGARRI: EZ DA KONZEPTU ABSOLUTUA; OBJETUAREN FAZETAK; DENBORA; LEKUA.

Nire ustez, lau ezaugarri ditu konzeptu honek. Lehenengoa, *ez dela konzeptu absolutua*. Objektuak ez direla autoktono ta ez autoktonoetan bereizten. Biok graduapen baten muturrak dira eta, hain zuzen ere, graduape hori seinalatzea ta argitzea zaio interesgarri folklore zientziari.

Kultura herrikoi batetan sortutako objektu folklorikorik gehienek osagai arrotz handi bat dute, beste kulturekiko elementu kidez osatuta. Folklore zientziak ikertu nahi du ze neurritan agertzen diren beste kulturekiko elementu kide hauek eta ze neurritan berezko elementuak, propiokien elementu autoktonoak izenda ditzakegunak.

Lehenago txistuaren kasua aipatu dugu. Benetan, historian sortu zen hiru zulo-tako lehenengo txilibitua euskaldun baten burutik edo eskuetatik izan zela ezin baiezta dezakegu. Halarik ere, egun txistua da euskal musikagailurik autoktonoena, jatorria datekeelako seguraski autoktonotasun osoa ez duen arlo bakarra. Gainerakoan, historian zehar euskal kulturak halako kualitatez ornitu

(2) AZKUE, R.M.^a, *Cancionero Popular Vasco*, La Gran Enciclopedia Vasca, BILBAO, 1968, Tomo I. p. 10.

du ta halako usariotan erabili ezen egun beharturik euskal kulturaren musika-gailu propio ta autoktonotzat hartu behar dugula (3). Eta honenbeste esan liteke beste objektu folkloriko anitzetaz.

Bigarren ezaugarria: objektu folklorikoetan *fazeta edo alderdi desberdinak* kontsideratu behar dira ta hauetako bakoitzean euskalduntasuna neurtu. Objektua ez da monolito bat: honen baitan bereizkuntzak egin daitezke beti. Gai edo material batzuz obratzen dira. Tresnen kasuan, egurrez, burniz,... Dantzen kasuan, pertsonen, umeak edo helduak, emakumeak edo gizonezkoak izan daitezkeenak... Musikaren kasuan, erritmo ta interbalo konkretu batzuz (4)... Errefraua ta ipuinen kasuan, hizkera batez...

Usuario batetarako erabiltzen dira bestalde objektu folklorikoak. Mundua ulertzeko, mitologia osoa. Munduaz jabetzeko, tresneria. Olgatzeko, dantzak eta abar.

Fazeta hauek eta hauetan bereiz daitezkeen azpifazetak kontutan hartu behar dira objektu bat ze neurritan den autoktonoa aztertzerakoan. Gehienetan, esan dugunez, objektu folklorioak ez dira bizi diren kulturatan sortu. Honek, ordea, haren eskuratzea obratu du ta eskuratze hau fazeta ta azpifazetetan ageri da.

Objetua ta onartzen duen kulturaren arteko erlazioak neurtzen duen beste ezaugarri bat *denbora* da. Noiz integratu da objektu bat kultura batetan? Noiz arte irauten du kultura horren osagarri? Denbora epe horretan gorabeherarik ba al dago?

Ikus ditzagun, adibidez, dultzaina ta albokaren kasuak. Beste sasoietan oso zabalduta zeuden, Gipuzkoan behintzat Iztuetak ziurtatzen duenez. Egun, baina, beren gunea murriztu ta txikiagotu da oso. Xirularen kasuak alderantzizkoa ematen du. Kasik gaurdaino Ifarraldeko Euskal Herrian zuen bizilekua. Egun Euskal Herri osoan zabaltzen ari da ta uste dut hemendik gutxira erabat hedatuta egondo dela. Berebat esan dezakegu dantzetat. Gaur *dantza askatua edo sueltao* jator ta autoktonotzat ematen dugu. Iztuetak, alderantziz, orain dela mende t'erdi bat, *arin-arina edo Bizkai-dantza* onartzen zuen soilik eta ea Bizkaira mugatuta, egun dantza sueltaoren doinu errepertorioa osatzen duten fandango, baltz, habanera, kontradantza ta abarrak arbutatuz. Gipuzkoa aldean, 1981. urtean, ez da *Gizon-dantzarik* eratzen amaitzeko fandango ta arin-arin bat jo gabe (Agintariena ez izanik).

Objetu folklorikoa ta jasotzen duen kulturaren arteko harremanak denboraz aldatzen direla ta, autoktonotasuna denboratan kokatu behar da ta honen prozedura ta aurrerabidearen berri eman garai bakoitzean.

(3) Honetaz ihardun zuen Jose Luis Antsorenak *Musikaste* 73.ean eman zuen hitzaldi batetan. *Txistulari* aldizkarian dago argitaratuta, 75-76 zb., BILBO. 1973.

(4) Ikus. ESKUDERO, F., *Peculiaridades morfológicas de la canción popular y de la música vasca*. *Txistulari*, 69 zb., DONOSTIA, 1972.

Azkenik, beste ezaugarri bat dugu, nire ustez kontutan hartzekoa. *Lekua* edo objektu folklorikoak heltzen duen zabaltasun geografikoa kontsideratu behar da. Kultura nolabait egituratuta dagoen sineskera, ohitura, usuario, ezagupen ta praktika multzo bat da: mundu ta bizitzari hurrerapen bat. Ikuspuntu honetatik inork ezin uka dezake euskal kulturaren izatea. Eta kultura batetan barne, badira arlo bildutagoak, kohesionatutagoak, hesparru geografiko txikiagoko kulturak. Alde honetatik ere autoktonotasuna kokatu egin behar da.

Euskaldunoi ez zaigu gehiegi gustatu izan, era desberdinetako arrazoinengatik, gure folklorea Espainiakoarekin batetara jartzea, espainiatar folkloreaken zati bat balitzan aurkeztea. Horrek mindu egiten gintuen. Noski, mugak eta Armadak Espainarekin biltzen gaituzte (Batzuok; besteak Frantziarekin) arren, euskal abertzaletasunak aurkitu egin izan du beti folklorea Espainia ta Frantziatziaz bereizteko bide egoki bat ta Euskal Herri baten kontzientzia borobiltzeko modu aprobe txagarria. Geurok, hala ere, batzutan era berean jokatzen dugu Euskal Herri barruan, konzeptuen mailan, jakina.

Euskal Herria bat den era berean, euskal kultura eta folklorea bat dugu ere bai. Honek, baina, ez du esan nahi osagairik ez duenik. Badira objektu folklorikoak ta autoktonoak, egun euskaldunak, hitzaren hedatasun osoan, ezin kontsidera daitezkeenak, baizik eta Euskal Herriko alde batetakoak. Alboka jar dezagun adibidetzat. Eta, neurri batetan, dultzaina ere, azkeneko garaietan *gaita navarra* izenez ezagutzen bait da leku askotan. Bizkaiko aurrekuaren *Erregelak* direlakoekin hori bera gertatzen da ere: Gipuzkoan sortu arren, Iztuetari kasu eginez gero, Probintzian arras galduta daude egun ta Bizkaian mantentzen dira bakarrik.

Objetu baten jite autoktonoa neurtzerakoan, beraz, hesparru geografikoa xehetasunez markatu behar da.

Orain arte esandako guztia jaso dezagun, bukatzeko, esaldi batetan. Objektu folkloriko baten jite autoktonoa lau elementu aldagarrik definitzen dute: kultura bakoitzak erakartzen duen orijinaltasun edo jatoritasun mailak, hauek agertzen diren objektuaren fazetak, objektua irauten edo iraun duen denborak ta erabili den lekuek.

Besterik ez.